

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Benigno Gómez, Osasun Ikerketako Institutuko kudeaketa zuzendari berria

Izendapena jaso arte Nafarroako Unibertsitateko Publikoko Ikerketa zerbitzuko zuzendari kargua izan du

Osteguna, 2019.eko martxoak 7

Pasaden martxoaren 1etik, Benigno Gómez Lópezek Nafarroako Osasun Ikerketako Institutuko (IdiSNA) kudeaketa zuzendari kargua du.

Erakundeko estatutuek zehazten duten moduan, zuzendari berriaren izendapena, Fernando Dominguéz kontseilariak zehaztu du, eta bere izendapena onartua izan da osotasunez IdiSNAko Patronatuak otsailaren 22an egindako bileran.



Benigno Gómez, IdisNako kudeaketa zuzendari berria.

Kargu hau hartu aurretik Benigno Gomezek Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Ikerketa zerbitzuko zuzendari kargua izan du, eta 2016az geroztik, IdisNAko Kudeaketa Komisioko ordezkaria izan da.

Orain arte Marisol Fragoso Roaneseke IdiSNAko kudeaketa zuzendari kargua, Navarrabiomedeko (IdiSNA barruko zentroa) kudeaketa zuzendaritza karguarekin uztartu du. Baina, IdiSNAk Osasun Ikerketako Institutu akreditazioa lortzeko helburua lortuta, bi karguak ezberdintzea beharrezkotzat jo da, bi karguei lanaldi osoko dedikazioa emateko.

Modu honetara, Marisol Fragosok Navarrabiomedeko kudeaketa zuzendari moduan jarraituko du, eksklusiboki lana zentro horretan betez eta, ondorioz, NUPekin elkarlanean gauzatzen den osasun ikerketa publikoa indartuko da.

Lan ibilbidea

Benigno Gómez López (1968 Sevilla) Fisikan Lizentziatua da Zaragozako Unibertsitatean eta Zuzendaritza eta Kudeaketa Publikoko formazio zehatza jaso du NUPen eta Nafarroako Administrazio Publikoko Institutuan.

Estatistikako Institutu Nazionalean egon ostean, 1996an Nafarroako Unibertsitate Publikoan sartu zen funtzionario moduan, eta bertan arduraz ezberdineko hainbat kargu bete ditu. 2007an Ikerketa Zerbitzuko zuzendari izendatu zuten, eta hor izan da berriki hartu duen izendapena jaso arte.

Bere azken kargutik, Ikerketa Eraitzen Gardentasun Bulegoko (OTRI) zuzendari izan da; NUPeko Europako Proiektuen Bulegoko, eta bertako Balorazio Unitateko arduraduna izan da.

IdiSNAren akreditazioa

Urtarrilaren 24an, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate ministroak Nafarroako Osasun Ikerketako Institutuari (IdiSNA) osasun ikerketako institutu akreditazioa eman zion.

Era berean gogoan hartu behar da Rosario Luquin Piudo doktoreak, Nafarroako Unibertsitateko Klinikako neurologa eta ospedun ikerlariak, erakundeko Zuzendaritza Zientifikoko karguarekin jarraituko duela, 2014tik betetzen duen kargua.